


SECCION AMENA.



S E G U R Á N .



—Atzo izandu nintzan
feriya lekuban,
baña begiyen pintan
arki etzindudan;
ustasun bat billatu
nuben inguruban,
eta an etziñala
jarririk buruban,
¿badakizu zer egiñ
nuben nik orduban?...
ardotegiyan sartu
nintzan segiduban.

—Pillipe etzazula
ori jarri dudan,
an izan nintzan nola
bi zekor ditudan.

—Galdetu niyon Char-i
ikusi zinduban
eta eranzun ziran
«Etzekiat nun dan.»
Chinista zazu nik zer
esaten dizudan,
eta asto bat nola
arkitu eznuuban,
etziñala izandu
ala uste nuban.

V. IRAOLA.

